




Kutxaren gizarte-jarduera 2016an



**MEM
ORIA
2016**



kutxa
FUNDAZIOA



Aurkibidea

> Aurkezpena	3
> Instituzionala	4
> Proiektuetarako laguntza	5-9
> Solidaritatea	10-11
> Kutxa Ekogunea	12-14
> Eureka! Zientzia Museoa	15-17
> Hezkuntza eta aisialdia	18-20
> Onkologikoa	21-23
> Erakusketak	24-26
> Kultura	27-33
> Newsletterra	34-35



Kutxa Fundazioko lantaldea

Aurkezpena

Gipuzkoako gizarte eta ekonomiaren eragilea, Kutxak 2016an aurrerapauso irmoa eman zuen gizartearen aurrean aurkezteko beti izan den erakunde gisa. Sekula, ezta ekonomia-krisiaren garaietan ere, ez zuen bertan behera utzi Gipuzkoarekiko gizarte-konpromisoa, eta orain, etapa hura gainditu dela dirudienean, lurraldeko ekonomiaren garapenean lidergo-zeregina onartu du, historiaz eta bokazioz dagokiona.

Kutxaren Plan Estrategikoak dio Fundazioak erreferentziazko erakundea izan behar duela ekonomia nahiz gizarte arloko proiektuak identifikatu, bultzatu, babestu eta laguntzeko, betiere Gipuzkoaren garapenean laguntzen badute; azken batean, Gipuzkoako proiektuen eragile izatea.

Konpromiso hori betetzeko Kutxak bere finantza-baliabideen zati garrantzitsu bat erabili zuen: CAFen %2 eskuratu zuen, eta horrela bere historiarekin berraurkitu zen, zeren eta Beasaingo enpresaren bilakaeran, trenak egiteko arloan gaur egun duen lidergoa lortu arte, funtsezko zeregina jokatu izan baitu. Eta partaidetzak erosi ditu Gipuzkoako ekonomia bultzatzeko zereginean protagonista izan daitezkeen beste enpresa batzuetan. Kutxaren inbertsioa 50 milioi eurokoa izan zen.

Inbertsio-ahalegin honek ez ditu mugatu beste baliabide batzuk, alegia, gizarte- eta kultura-jarduerak bultzatzera bideratuak,

Kutxan ohikoak direnak. Eta berria bada ere, tradizioari lotuta dago Gipuzkoako erakundeek eta elkarteek gauzatzen dituzten gizarte- eta kultura-proiektuetarako laguntzak ematea deialdi publiko baten bidez: 2016. urtean 147 proiektuk jaso zuten laguntza hau, guztira 1,7 milioi.

Gizarte- eta kultura-jarduera horren zati handi batez, nahiz eta pintzelkada arinetan izan, Oroitidazki honetako orrialdeak mintzo dira. Eta hor agerian geratzen da Kutxak bere gain harturiko gizarte- eta kultura-sustatzailaren eginkizuna.

Adibidez, DSS2016 kultura-hiriburutzaren ekintzekin izandako lotura: ekarpen garrantzitsuak egin zizkion, ekonomikoaz gain, bere erakusketa-aretoen programazio bereziaren bidez, Kubo Kursaaletan eta Artegunea Tabakaleran; baita Donostia Hiriko Literatura Sariak berreskuratzea ere.

2016a markak hautsi dituen urtea izan zen Kutxaren funtsezko azpiegituretan —Eureka! Zientzia Museoan eta Ekogunean— izandako bisitari kopuruan. Eta finkatze-urtea, ia zorabiatzeko moduko jarduerarekin, Kutxa Kultur Tabakaleran. Onkologikoarentzat ere urte garrantzitsua, lokarri bihurtu baita osasun arloko teknologia-berrikuntza garatzeko lankide baten bila dabiltzan proiektuentzat.

Labur esanda, askoz gehiago dago ondorengo orrialdeotan, eta irakurtzera gonbidatzen zaituztegu.



Kutxa Fundazioaren egoitza Arbide Dorreetan Miramonen

Manuel Beraza da Xabier Iturberen ondorengoa Kutxaren lehendakaritzan

Manuel Beraza Olabarrieta enpresa-eremuan eskarmentu handikoa da, lotura estua izan baitu Mondragon Korporazioarekin; bera da Kutxa Banku Fundazioaren eta beronen mendeko fundazioen lehendakari berria 2016ko ekainaz geroztik. Ardura honetan Xabier Iturbe Otaegiren ondorengoa izango da, erakundea sortu zenetik orain arte hau izan baita lehendakaria; aurrerantzean ohorezko patronatu-kide izango da Iturbe.

Lehendakaritzakoaz gain, Fundazioaren lehendakaritza-ordean ere badira aldaketak, Guillermo Echenique izendatu baita patronatu-kide izateko José Miguel Martín Herrera-ren ordeaz. Bestalde, patronatu-kide izateko Guillermo Ibargoiien sartu da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari gisa, eta Fundazioaren Idazkaritzan Natalia García de Albizu izango da Rosa Leal-en ondorengoa, Emma Azpiroz-en laguntzaz idazkariorde gisa.

BESTE GERTAERA GARRANTZITSU INSTITUZIONAL BATZUK

Erakunde-jarduera bizia izan da 2016an, eta Kutxako guneek hiru aldiz jaso zuten Eusko Jaurlaritzako Iñigo Urkullu lehendakariaren bisita: Onkologikoara egindako bisitan; Eureka!, gau paralinpikoaren ospakizunean, Kutxa Kultur Plazan eta Jesus Mari Lazkanoren erakusketa ireki zenean, Kubo aretoan.

Bestalde, Nazaret Zentroak, bere ehun urteko historian hainbat hamarkadatan Kutxaren Gizarte Ekintzari estu loturiko prestakuntza-zentroak, urtarilean jaso zuen Herritar Merezimenduari ematen zaion dominetako bat, hauek Donostiako Udalak urtero ematen dituelarik San Sebastian jailetan.

Abuztuaren 31n, Kutxak areto bat ireki zuen, Donostiako Alde Zaharreko kale ezagunaren izena daramana. Kutxak Gipuzkoako gizartearen zerbitzura jartzen duen kultura-baliabide berriak Donostiako Historiaren Dr. Camino Institutua izandakoaren txanda hartu zuen eta eraberritze integralaren ondoren Tellechea Idigoras Fundazioa eta Gipuzkoako Ateneoa ere bere barruan ditu.

Eta berez erakunde-jarduera ez den arren, aipatzekoa da omenaldi bat, Kutxaren kultura-eta arte-jardueran erreferente historikoa den Juan Luis Mendizabali ("Mendi") abuztuan eskainia, pintura-erakusketa gisa.

Kutxaren laguntzen lehen deialdia gizarte- eta kultura-arloetako 147 proiektuetara iritsi da

2016an Kutxak lehen aldiz egin zuen deialdi irekia Gipuzkoan gizarte- eta kultura-proiektuak gauzatzen dituzten elkarte eta erakundeek eskatu eta jaso ditzaten Fundazioak honetara bideratzen dituen laguntzak.

Deialdi honetara 377 proiektu aurkeztu ziren guztira, 302 elkarteek sustatuak; oinarrietan ezarritako helburuen argitan aztertu ziren, ikusteko ea erakunde eskatzaileek betetzen zituzten eskatutako baldintzak.

Azkenik, Kutxa Fundazioaren Patronatuak, laguntzen deitzaileak, hartzekodun jo zituen hainbat arlotako 147 proiektu.

Aurkezturiko proiektuen ebaluazioan, Kutxaren Plan Estrategikoarekin bat etortzeaz eta bere balorazio ekonomikoaz gain, oro har, proiektuak genero-berdintasunari eta emakumearen parte-hartze eta ahalduntzeari egiten dion ekarpena izan zen kontuan.

Proiektuei buruz erabakitzerakoan kontuan izan zen banaketa geografiko orekatua ere Gipuzkoako eskualdeen artean, eta banaketa zabala bilatu zen, laguntzak aurrekontu apal eta ertaineko proiektu askotara iritsi zitezen.

Elikagai Bankuaren furgoneta, 2016ko laguntzetako bat



Kutxak egindako lehen deialdian emandako laguntzen laburpena honako hau da:

1. Emandako laguntzak

Proiektuak	147
Zenbatekoa	1.699.132,90 €

2. Zenbatekoen arabera

	PROIEKTUAK	ZENBATEKOAK
30.000 € baino gehiago	8	816.318,90 €
20.000 eta 29.999 € artean	6	122.000,00 €
10.000 eta 19.999 € artean	28	323.300,00 €
5.000 eta 9.999 € artean	37	248.500,00 €
5.000 € baino gutxiago	68	189.014,00 €
GUZTIRA		1.699.132,90 €

3. Eremuen arabera

	ZENBATEKOAK	PROIEKTUAK	ZENBATEKO OSOA %	PROIEKTUAK %
Gizarte-laguntza / Elkartasuna / Dibertsitate funtzionala sartzeari	1.126.683,90 €	66	%66,3	%44,9
Argitalpenak / Ekitaldiak	166.349,00 €	34	%9,8	%23,1
Kultura	138.900,00 €	23	%8,2	%15,6
Ikerketa / Berrikuntza	75.000,00 €	1	%4,4	%0,7
Iraunkortasuna eta Ingurumena	72.500,00 €	6	%4,3	%4,1
Hezkuntza	43.500,00 €	6	%2,6	%4,1
Kirola eta Aisialdia	43.200,00 €	8	%2,5	%5,4
Euskara / Hizkuntza-aniztasuna	33.000,00 €	3	%1,9	%2,0
GUZTIRA	1.699.132,90 €	147	%100,00	%100,00

2016an laguntzak jaso dituzten proiektuak

GIZARTE-LAGUNTZA / ELKARTASUNA / DIBERTSITATE FUNTZIONALA SARTZEA (63)

Programa de divulgación y sensibilización (Asociación Mindara); Diabetes intervención psicológica (Asociación Guipuzcoana de Diabéticos); Servicios gratuitos Atención telefónica y asesoramiento psicológico en sede (Teléfono de la Esperanza de Gipuzkoa); Programa Oscus elkartuz (Fundación Obra Social y Cultural Sopeña); Atención integral para personas afectadas por daño cerebral adquirido de Gipuzkoa y sus familias (Atece-Gipuzkoa); Una sociedad inclusiva (Gielmar Gipuzkoako Elbarriak Martxan); Fortalecimiento organizacional y mejora de la participación de mujeres y jóvenes de Monte Largo República dominicana (Tau Fundazioa); Cine forum (Asociación de Mujeres Pagatxa); Gurekin blai (Cruz Roja Gipuzkoa); Dotación de recursos para personas afectadas por síndromes de sensibilización central (Bizi Bide Asociación Guipuzcoana Fibromialgia y Síndrome de Fatiga Crónica); Funcionamiento general de cc Gipuzkoa (Asociación Contra el Cáncer Junta de Gipuzkoa); Proyecto de país. Nagusilan siempre a tu lado (Nagusilan); Gizakia helburu-proyecto hombre, drogen kontsumoa eragindako arazoan tratamendurako programak (Izan Fundazioa); Escuela de formación y capacitación en discapacidades y dependencia (Asociación de Voluntarios a favor del Síndrome de Dravet apoyo Dravet); Servicio de intervención psicosocial (Alcer Gipuzkoa); Guraso aktiboak, formación, apoyo e integración social de las familia inmigrantes en el ámbito socio educativo (Asociación Jatorkin); Intervención comunitaria para personas afectadas de fibrosis quística y sus familias (Asociación Guipuzcoana de Fibrosis Quística Arnasa); Escucha apoyo y desarrollo personal a inmigrantes latinoamericanos (esperanza latina); Programa de intervención psicosocial sobre la prostitución –aukera (Asociación

Arrats); Deparkel mejorando la calidad de vida (Deparkel Debarrena Parkinson Elkarte); Psicoestimulación cognitiva (Afagi); Programa bidean (Asociación Contra Anorexia y Bulimia Acabe Gipuzkoa); Tiempo de socialización para infancia y juventud con discapacidad auditiva (Aransgi Asociación de Familias de Personas Sordas de Gipuzkoa); Bideak Zabalduz (Agisas Asociación Guipuzcoana de Integradores Sociales y Animadores Socioculturales); Movimiento asociativo (Asociación Beroa Familias Acogedoras de Gipuzkoa); Escuela de la experiencia de Debarrena (Ikasten Asociación Alumnado Escuela de la Experiencia de Debarrena); Repensar las políticas sociales: redistribución e inversión social (Fundación Eguia Careaga); Beharra daukat - lo necesito ya (Accu Gipuzkoa Enfermos de Crohn y colitis ulcerosa); Atención temprana a familias con Tdah y mantenimiento (Adahigi Asociación de Déficit de Atención con/sin hiperactividad de Gipuzkoa); Ampliación del servicio de recogida de alimentos (Banco de Alimentos de Gipuzkoa); Programa integral para la prevención de los malos tratos contra las mujeres en las aulas (Ikertze); Programa de atención psicológica individual y gr.(Asociación Guipuzcoana de Deficientes Visuales); Prevención del desamparo (Atzegi); Acogida temporal de menores afectados por accidente nuclear (Chernobilen Lagunak); Dandai: ejemplo práctico de rentabilidad social (Dandai); Kutxa Zeharo servicio de empleo para personas en riesgo de exclusión (Gureak Inklusio Fundazioa Kutxa Zeharo); Urretxindorra / ruiseñor mentoría para pre-adolescentes de origen migrante en riesgo de exclusión (SOS Racismo); Actividad deportiva basada en valores y programas de colaboración con entidades sociales (Askatuak saski-baloi taldea); Talleres de sensibilización (Movimiento por la Paz Bakearen Aldeko Mugimendua); Ciudadanía global Donostia: jóvenes donostiarras en la implementación de la agenda 2030 (Fundación Economistas Sin Fronteras); Sensibilización y comunicación (Ortzadar Adimen Limitedun Pertsonen Aldeko Gipuzkoako Elkarte); Escuela de diseño social: innovación en el valor de las relaciones (Aptes Asociación para la Promoción de la Tecnología Social); Sexualitatea, generoa eta garapena, unibertsitatera hurbilduz (Medicus

Mundi Gipuzkoa); Mucho más que epilepsia (Asociación Guipuzcoana de Epilepsia); Reto Dravet deporte solidario (Fundación Síndrome de Dravet); DYA gizarte zerbitzuak/servicios sociales DYA (DYA); Proyecto potencial naranja -ayuda a la inserción laboral de la juventud y colectivos en exclusión (Asociación lleno de naranjas); Sarea josten (Nazaret); Hernani hitzetan (Amher Asociación Multicultural de Hernani); Auzokidetu (Emanhar Gizarte Elkartea); Campaña anual de sensibilización 2016 (Asociación Intercultural Kolore Guztiak); Donostiako gizarte otordua (Fundación Zorroaga); Adam Agrupación deportiva Aita Menni (Hospital Aita Menni Fundación Why Not); Asistencia e intervención hospitalaria (Algaraklown Ospitaleko Pailazoak); Garagune Amara (Fundación Goyeneche); Proyectos varios (Helduak Adi); Zurekin: atención socioeducativa a menores y familias en riesgo y exclusión social (Fundación Valsé); Buru nahasmena duten pertsona eta familie arreta zuzena (Agifes Asociación Guipuzcoana de Familiares y Personas con Enfermedad Mental); Programa de Intervención social (Pausoka elkartea); Fisioterapia etxean (Gene Asociación Guipuzcoana de Enfermos Neuromusculares); Interseccionalidad, autocuidados y convivencia intercultural para una vida plena (Malen Etxea); Apoyo integral a adolescentes y a sus familias (Asociación de Intervención Social Gaztedi); Elkargune elizaran espacio para el aprendizaje y el encuentro (Asociación entreculturas Elkarrekin Bizi)

KULTURA (23)

2016ko Arkeologi ikerketak (Antxieta Arkeologi Taldea); Desarrollo del potencial creativo y participativo (Club de Arte Catalina de Erauso); FM 105.8 Antxeta irrati -eurohiria saretzen (ONG Pausumedia); Barandiaran: Europa eta baloreak (Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa); Temporada 2016 (Asociación Lírica Luis Mariano Irun); Argazki hiria (Sociedad Fotográfica de Gipuzkoa); 111 akademiaren jarduna (Manuel Larramendi Kultur Bazkuna); Easo Abesbatza Euskal Musikaren enbaxabore (Coro Easo); Euskal Dantza plazan (Herridantza Dantza Taldea Elkartea);

Oholtzaberri proiektua (Euskal Herriko Antzerki zale Elkartea); Aizorrotzeko tenentzia (Hernani Errotzen Memoria Historikoa Elkartea Kulturak); 2016.ekitaldirako egitasmoa (Gipuzkoako Abesbatzen Federazioa); II ciclo sala club (Donostia Musika); Transbita 2016 (Asociación de Artistas Artitadeto); Nola egokitu tradizio bat egungo balioetara: Antzuolako alardea (Antzuolako Mairuaren Alardearen elkartea); Proyecto educativo del Orfeón Donostiarra-Coro Juvenil (Orfeón Donostiarra/Donostiako orfeoia); Soinuzko begiradak/miradas sonoras (Zukan Kultur Elkartea); Osintxu: 2016ko ekintzak (Txurigo Kultur Elkartea); Talleres residentes (Undermount Asociación Cultural y Casa del Artista); Eibarlab's (Hirikiten); Proyecto de residencias artísticas y eventos culturales (Biharrian Elkartea); Murallas y fosos medievales de Gipuzkoa: esos grandes desconocidos (Fundación Arkeolan); Eskualdez eskualde kantari (Coral Andra Mari Abesbatza Kultur Elkartea)

KIROLA ETA AISIALDIA (6)

Xake Kutxa festibala (Gros Xake Taldea); Práctica de remo femenino (Donosti Arraun Lagunak); Rugby sociedad y club (Ordizia Rugby Elkartea); Astialdia saretuz (Hezkide Eskola); Marcha XIV horas 2016 (Aralarko Adiskideak); Txantxariak (Urtxintxa Aisialdiko Eskola Gipuzkoa)

EUSKARA / HIZKUNTZA-ANIZTASUNA (3)

Hizkuntza biziberritzeko estrategiak aditu ikastaroa III (Garabide Kultur Elkartea); Lingolang (Topagunea Euskara Elkarleen Federazioa); Jendaurrean erabili proiektua (Soziolinguistika Klusterra Elkartea)

HEZKUNTZA (6)

Zientziakide (Elhuyar Fundazioa); Gorputzalduak la danza como herramienta para la innovación pedagógica (Adierak Dantza eta Hezkuntza); Herramientas para un e-learning inclusivo (Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioa); Red de talleres

socioeducativos de inclusión social (Asociación Erroak); Anima sin desanimar (Federación Guipuzcoana de baloncesto); Hazion (Bizion Jarduera Osasuntsuen Elkartea)

IKERKETA / BERRIKUNTZA (1)

Stop Alzheimer 2020-erronka partekatu bat (Fundacion Cita Alzheimer)

ARGITALPENAK / EKITALDIAK (34)

Bertsolari aldizkaria 2016 (Bertsozaleak Kultur Elkartea); Euskarazko Errezetategiak sukaldean+pagotxa (xoraturikan em); 38. Euskal Herriko eskulangintza azoka (Ereintza Elkartea); Ondare arkitektonikoa Euskal Herrian. Animaziozko mikrobideoak (Fundación Euskomedia); 1740ko plano bat zaharberritzea (Atauniker Kultur Elkartea); Gipuzkoako arrantzale zaharraren 89 omenaldia (Gipuzkoako Arrantzale Zaharraren Omenaldia); Musikaste Euskal Musikaren astea 44 edizioa (Eresbil Musikaren Euskal Artxiboa); Ciclo Aso (Mariaren Bihotza Abesbatza); VIII jornada estatal contra la violencia de género (Colegio Oficial de Psicología de Gipuzkoa); XIX semana musical Aita Donostia (Asociación Gaztedi); Am big band diska grabaketa (Arrasate Musical); Premio Kale Dor Kayiko (Asociación Kale Dor Kayiko); Bioterra 2016 (Ficoba Fundazioa); Proyecto camisetas retinosis pimentaria (Begisare); Cuento educativo con temática social (Ondare Kultur Elkartea); Concierto Telmo eta lau urtarok (Asociación de familias y amigos de personas con trastorno específico del lenguaje Tel-Euskadi); Ahotsak.eus: Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea sarean (Adihardugu Deba Ibarreko Euskara Elkartea); Soinu zahar erakustaldia (Gipuzkoako Dantzarien Biltzarra); Kronika (Dobera Euskara Elkartea); Actividades 2016 (Asociación Artístico Cultural Manos K Rien); Ordiziako Dantzari Eguna (Ametz Bide Kultur Elkartea); Teatro con orgullo: la diversidad identitaria, afectiva y sexual a escena (Euskal Herriko Lesbiana Gay Lesbianas Bisexuales y Transexuales del País Vasco); Difusión de la formación profesional a la sociedad guipuzcoana (Ikaslan Gipuzkoa); Gazte

euskaltzaleen I. topaketa (Arrasate Euskaldun Dezagun Elkartea); Síntesis de historia de Gipuzkoa (Asociación de Historiadores Guipuzcoanos); Euskal Herriko Lurraldearen liburu zuria (Eusko Ikaskuntza); Open House Donostia (Asociación Cultura Arquitectónica Euskadi Atari); Celebración del VII Festival Internacional de cine en lengua de signos (Gaititzen Asociación de Personas Sordas de Tolosaldea-Goierri); Ciclo conferencias temas actualidad para socios y público en general (Aspalgi Gipuzkoako Foru eta Udal Administrazioa Erretirodunen Elkartea); IV gazteen dantza solte txapelketa (Gaztetandik Kultur Elkartea Errezil); Ellas cantan (Men Of Rock MOR Musika Elkartea); X. Bidasoako Abesbatzen Jaialdia - X. Festival coral del Bidasoa (Sociedad Cultural Coro Ametsa); Jornada formativa a pediatras y profesionales de Osakidetza (Avaim Asociación vasca para la ayuda a la infancia maltratada); Ordiziko 7 orduak (Ordiziako udala/Eman Egurre Elkartea)

AZPIEGITURAK (5)

Adquisición y obras de adaptación para acceso local (Club deportivo Kemen de personas con discapacidad); Acondicionamiento de locales nuevos (Agipad); Accesibilidad instalaciones Aubixa barnetegia (Aubixa Elkartea); Zeraingo pilotalekua kirolgune bihurtzeko egitasmoa (Zerain dezagun Fundazioa); Adecuación sede fundación (Hurkoa)

IRAUNKORTASUNA ETA INGURUMENA (6)

Sociedad basura y gaviotas. Evaluación del impacto del cierre de vertederos en las gaviotas (Aranzadi Zientzia Elkartea); Ongi etorri baserrira! (Enba); Plan de visibilización y campaña de visibilización (Artzai Gazta Elkartea); Sensibilización ambiental del litoral. Campaña 2016 (Itsas Gela - Aula del Mar); Bioconstrucción y eficiencia energética (Asociación para la Innovación Social Hiritik at); Errezil sagarra balioan jartzeko proiektua (Ibarbi, Errezilgo Errezil Sagarraren Kultur

Kutxa Solidarioa: gizarte kohesionatuago eta inklusiboagoa helburu gisa

Kutxa Solidarioaren helburua da Gipuzkoako elkarte-ehunaren eraketa erraztu eta sendotzea, baita erakunde eta pertsonen

aztarna solidarioak ikusgai bihurtzea ere gizarte kohesionatuago eta inklusiboagoa eraikitzeko. Hau izan zen, aurreko ekitaldietako ildoari jarraituz, 2016an gauzatu zituen ekintzen eragilea ere.

Sail honen jarduera nagusia 2011tik sustatzen duen Gipuzkoasolidarioa.info sarearen dinamizazioan aurki genezake: web orria eta sare sozialak, Gipuzkoako elkarteek antolaturiko jardueren zabalkundearen zerbitzura. Datu batzuek argi uzten dute lortzen ari garen emaitza: 148 elkarte, 334 pertsona interesatuta berariazko informazioa jasotzeko, 958 albiste elkarteek agenda solidarioan sortuak, 616 sarrera blogean, 2.573 'atsegin dut' Facebooken, 1.677 jarraitzaile Twitterren.



Eguzkia eta itsasoa berdintasunean oztoporik gabeko bainuarekin

Beste ekintza ohargarri bat Bergarako Kilometroak festan gauzaturiko esku-hartze proposamen berritzailea izan zen. Gipuzkoa Solidarioak honelako kultura eta jai-guneetan gutxi ordezkaturiko taldeak —adintsuak, dibertsitate funtzionala dutenak, etorkinak...— inplikatzeko proposatu zuen, eta herritarren proaktibitatea elkartasunerantz bultzatzen saiatu zen.

Are gehiago. KutxaZabal Zentroak udaberrian bildu zituen mendekotasuna dutenei gizarte-erakundeetan arreta soziosanitarioa emateko prestakuntza-ikastaroak, eta Lanbide-EEZak egiaztatu edo akreditatzen dituenak. Gainera, ikastaro hauek lanekoak ez diren praktika profesionalak bilatzen dizkiete parte-hartzaileei sektoreko enpresetan eta hobariak izan ditzakete jarduneko langileentzat.

Elkartasuna eraman zuen Donostiartean arte-azokara, eta bertan Esperanza Latina eta Haurralde elkarteei aukera eman zien beren egitasmoen zabalkundea egin eta dirua batzeko. Aktiboki parte hartu zuen berriro Olatu Talka ekimenean, zentzumen guztiak jokoan jartzeko turismo-bisitak eginez. "Break a Leg!" proiektuarekin kolaboratu zuen, ikusgai bihurtuz ezgaitasunen bat zutenen arte-sorkuntzak. Elkartu federazioak

sustaturiko "Aniztasunetik berdintasunera" jardunaldian hartu zuen parte eta Kale dor Kayiko ¡Ánimo Gitano! sarietaren beste edizio batean, baita itsuak erabat gizarteratzeko Begiris Eguna deituan ere.

Kutxa Solidarioak berriro ere klasiko bat bultzatu zuen: oztoporik gabeko bainua Hondarribia eta Kontxako hondartzetan, gainerako herritarrekin baldintza-berdintasunean hondartzaz, eguzkiaz eta itsasoaz gozatzeko zerbitzu integrala eskaintzen diena dibertsitate funtzionala edo mugikortasun murriztua dutenei.

Eta lankidetzat hori beste ekimen batzuetara zabaldu zen: gakorratz lantegiak, Bakearen aldeko Mugimenduak sustatuak; sentsibilizaziorako arte eta kooperatiba-tailerrak; "Telmo eta lau urtaroak" elkartasun-kontzertua; Gielmar jaialdia; estatuko psikologia-jardunaldiak genero bortizkeriaren aurka... eta Gipuzkoa Solidarioa bereziki inplikatu zen Elikagaien Bankuak sustatzen duen Bilketa Handiaren kanpainan, non ikusi ahal izan zen Bankuak, Kutxak haren gizarte-egitasmoari emandako laguntzari esker, erositako furgoneta.

Gipuzkoa Solidarioa Foruma

2016an lorturiko arrakasta handiena Gipuzkoa Solidarioaren elkarten Foruma izan zen, bosgarren edizioa izan baitzen (aurrekoetan Solidaritatearen Festa deitua), eta berriro ere Tabakalera eraikinean izan zen. Arrakastaz hitz egin behar da izandako parte-hartze mailagatik eta hedabideetan izandako oihartzunengatik: 45 elkarte parte-hartzaile, 1.846 bisitari, 18 jarduera.

Gipuzkoa Solidarioaren V Foruma



Urria
22
10:00

Tabakalera (Donostia)
Sarrera doan



gipuzkoa
kutxa solidarioa
kutxa FUNDAZIOA



Kutxa Ekoguneko Haur Parkeak lehen urtea bete du

Kutxa Ekogunea ingurumen- eta ekologia-arloko sentsibilizazio eta hezkuntzarako zentroa da, kontzientzia harrarazi eta jokabide eta portaera iraunkorren ereduak zabaldu nahi dituen, eta aurrera jarraitzen du ekoparkearen garapen handinahiarekin.

Urtebete igaro da Haur Parkea ireki zenetik eta emaitzak oso onak dira; 0-11 urte arteko neska-mutikoentzako eta beraien familientzako gune berria da, pedagogia berdearen (Montessori, Freire) eta jolas askearen irizpideak kontuan izanda mimo handiz diseinatu genuena. Helburu ludikoarekin batera mezu ekologikoa transmititzen da bertan, jolas aske, sinboliko

eta autonomoa sustatzen da, baita parkearen gainerakoa ezagutarazi ere. Aurten 36.000 pertsonak ikusi dute. Horietatik 14.500 adin txikikoak izan dira eta 21.500 heldu laguntzaile. 900 neska-mutikok hartu dute parte tailerretan eta 1.400ek urtebetetzeko jaietan.

Datu horiei beste 500 adin txikiko gehitu behar zaizkie, udaleku irekiez eta udako eta neguko ludotekaz gozatu baitzuten, hirugarrengok antolaturiko aisialdiko eta aisialdi hezigarriko jarduera-elkarteetatik etorritako talde, etab. Maiatzaren 15ean 4.000 pertsona hurbildu ziren Udaberriko Festaz gozatzeko eta tailer, joko, dastatze, bisita gidatu, bazkari eta kontzertu handi batean parte hartzeko.

Ikasleentzako hezkuntza-eskaintzak ere handiagotu egin zuen bere programa. Jolasean eta praktikan oinarrituriko metodologia erabiliz, Kutxa Ekogunearen programa Iraunkortasun eta Ekintzarako Hezkuntzaren printzipioetan kokatzen da: baratzeak, urak, energiak, hizkuntzen ekologiak eta haur-parkeak osatzen dute eskaintza, eta horretaz etapa guztietako 6.800 ikaslek gozatu dute, Haur Hezkuntzatik

Pedagogia berdea eta jolas askea Haur Parkean





Abeletxea 2017an gauzatuko da

Datorrena

Larrez, harrobiz eta basoz osatutako 6 hektareatako lurraldea, eta protagonista nagusiak, animaliak. Euskal Herriko arraza autoktonoetako ahuntz, txerri, ardi, asto, oilo, antzaren... bizileku izango da Abeletxea eta guk, gizakiok, haien gonbidatu izateko aukera izango dugu.

Publiko orokorrari irekia, animaliak ikusteaz haratago, haiei buruz ikasteko eta haiekin batera gozatzeko eta bizipenak konpartitzeko aukera izango du bisitariak. Zer pentsatu eman baietz! Baserriak betidanik erakarri dituen animalia basatiak ezagutzeko aukera ere izango da, gehienetan oharkabean pasa ohi direnak.

Bigarren Hezkuntzaraino. 2016an, Donostiako Nazioarteko Zinemaldian, bideo bat proiektatu zen programa horretaz belodromoko haur-saio guztietan, eta istorio hartaz 13.000 ikaslek eta 600 irakaslek gozatu zuten.

Ez da hau izan urteko gauza berri bakarra, askoz gehiago ere izan dira:

Euskararen Ginkana eta Baratze Parkeen Sarea webguneak berritu dira, eta azken honengatik Buber saria jaso da, lehen sektoreko landa-web edo egitasmo onenari ematen zaiona.

Berrobi, Urnieta eta Irungo parkeekin 15 hiri-baratze daude gure sarean.

Ikaskuntza eta sentsibilizaziora irekitako ekoparkearen ideiak ikastaro, tailer edo lantegi, jardunaldi, kongresu eta topaketa profesional asko egitea ekarri zuen baratze eta lorategi, sukaldaritza, kontsumo, eraikuntzako iraunkortasun, heziketa berde eta abarri buruz, 5.000 parte-hartzaile ingururekin.

Kutxa Ekoguneak "Etxeko ura" kanpaina arrakastatsuekin jarraitu zuen, hau da, Gipuzkoako jatetxeetan beirazko pitxerrak

Udalekuak Kutxa Ekogunean



erabiltzea ur-botilen plastikoaren eragina murriztu ahal izateko. Ilido berean, jarraipena eman zion "Ontziratu zaitez!" kanpainari, eta urteroko Euskararen Ginkanaz gain, Udalekin eta Eskualdeekin lan egin du lurralde-ginkanaren edizioan. Lurraldean egindako kanpaina hauen eragina gehituz doa.

Hedabideetan oso presentzia aktiboa duelarik, Kutxa Ekoguneak hirugarrengokiko ekimenak partekatzen ditu, eta sarea sortzen jarraitzen du eta lankidetzaz-hitzarmenak berritzen GHK, SOS Arrazakeria, unibertsitate eta hainbat ikastetxe, Mugaritz, Bellota eta abarrekin. Parte-hartze aktiboa izan du Bioterra azokan (11.500 bisita gure standean), Kilometroak jaialdian (55.000 bisitari), DSS2016-n (Olatu Talka, Itsasfest, Sarrera Libreko Eguna haur-parkera) inpaktu puntualak lortuz baina 70.000 pertsona ingurukoak.

Eta gainera jarraitzen du egitasmo berriak proiektatu eta gauzatzen, parkea sortzen. 2016an "Hitzartu" hizkuntzen ekologia-zentro bereziaren egikaritze-proiektua amaitu da, Ekoguneko Abeletxearen lanak hasi dira eta kafetegia terrazaz eta kanpoan jolas egiteko lekuz hornitu da. Batzorde bat sortu genuen Eusko Jaurlaritzako bi zerbitzurekin, bi ikastetxerekin eta EHUrekin baso-eskolari (aire zabaleko haur-hezkuntzari) buruz esperientzia pilotu bat zehazteko, eta artikulua idatzi genituen, komunikazio-lana egin genuen, proiektua zenbait forotan aurkeztu genuen... betiere gizarteari jolas librearen eta natura-ingurunearen onurak transmititzeko metodologia eta hezkuntza-baliabide gisa, hurrenez hurren.

Kutxa Ekoguneak ilusioz aurre egiten dio urte berriari, eta gero eta bisitari gehiago hartzeko eta egitasmo berriak martxan jartzeko ari da prestatzen.

Baratze Eskolan ereindako haziak



Eureka!-k egia bihurtzen du hurbiltze unibertsala zientziara


Xume eta labur, "Zientzia guztion eskura" goiburuak zehazki adierazten du Eureka! Zientzia Museoaren helburua; izan ere, zientzia gizartera hurbiltzen saiatzeko gunea da, eta hori modu atsegin eta ulergarrian, ikaskuntza esperimentazioarekin eta

dibertsioarekin uztartuta. Eta gizarteak partekatu egiten duela dirudi: seigarren urtez jarraian museoan gehitu egin da ikusleen kopurua: 190.088 izan ziren 2016an.

Eureka! Zientzia Museoak, urtarrian 15 urte beteta, aurreko zenbait marka hautsi zituen. Horrela gertatu zen eskola-eskaintzan, Haur Hezkuntzatik Batxilergo eta Hezkuntza Zikloetarainoko ikasleentzat bereziki diseinaturiko tailer, bisita gidatu eta Planetarioko saioetan. 2016an 69.051 ikasle izan ziren museoan.

Bisitari partikularrak ere gehitu egin ziren, 45.738 pertsona guztira, batez ere familiak, hauentzat asteburuetan eta oporretan 2.945 animazio eta ikuskizun programatu zirelarik.

Museoaren kanpoaldea (goian) eta Planetariumeko saioa



Azken urtean, museoak bere lekuak berritu ditu, programak estreinatu... eta jarduera garrantzitsuen artean bi ikastaro aipa daitezke, robotikakoa eta gazteentzako bideo-jokoak sortzea; eta horien osagarri kolonia ludiko-zientifikoen (ohiko zientzia-txokoen) 17 txanda eta kolonia teknologikoen 10 txanda.

Planetarium birmoldatuak 2016an hiru programa estreinatu zituen: Stars, Polaris eta

Lurretik Unibertsora, eta saio interesgarriak eskaini zituen zerua azaltzeko ekinozioetan eta solstizioetan, baita Pertseidak bezalako fenomenoak ere. Planetariumean 62.605 ikusle izan ziren.

Museoan gero eta gehiago egiten dira askotariko ekitaldiak: 48 izan ziren iaz eta 8.103 pertsona elkartu ziren.



Zientzia ere izan daiteke dibertigarria



Passion for Knowledge

Eureka!-n beste klasiko bat ere izan zen: Burmuinaren Astea, mitoak desmuntatzeko eta burmuinaren sekretuak gizartera hurbiltzeko; eta bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikasleen eta Dudley Herschbach Kimikako Nobel sariaren arteko topaketa antolatu zuen Passion for Knowledge zientzia-jaialdiaren testuinguruan; jaialdi hau DIPCEk sustatzen du, erakunde honi sostengua ematen hasieratik parte hartzen duelarik Kutxa Fundazioak.

Lineako autobusa Eureka!-ko ateraino

Donostiako hiri-autobusen bi linea (28 eta 17) iaztik Eureka! Zientzia Museoaren ateraino iristen dira, bertan baitute azken geraldia Miramongo Parke Teknologikoan. Hori ahalbidetzeko, sarbideak aldatu dira eta biribilgune berri bat egin da, museoarako sarbidean. Museoak 16 urte bete ditu eta tarte honetan 2,4 milioi lagun baino gehiagoren bisita izan du; ikasleentzat tresnarik ahaltsuenetako bat eta familientzat kultura-aisialdirako baliabide ederra dela aitortzen da.

Azken geltokia: Eureka!



Baina parte-hartze aldetik gehikuntza handiena izan duen proposamena Animalia izan da, 2015ean irekitako aretoa, hiru ekosistema ezberdin eskaintzen dituen izaki bizidunen 20 espezie baino gehiagorekin. Erakusketa iraunkor hau sendotu egin da parte-hartzaileak gehitu egin direlako tailerretan eta ordaindutako bisita programatuetan: 11.602 pertsona izan ziren.

Museoaren klasiko bihurtua, bizitza zientifikoen topaketa iaz bi egunetan izan zen,

horrela parte-hartzaile gehiago sartu ahal izateko. Bizitza Zientifikoak DBHko 4. mailako eta Batxilergoko ikasleentzat da, eta zuzeneko topaketa-lekua da ikasleen eta profesionalen artean, zientzia eta ikerketara benetako hurbilketa sustatzeko. Ikasleei aukera ematen die zientzia eta teknologiarekin erlazionaturiko ikasketen aukera ezberdinak eta lan-irteerak ezagutzeko, eta etorkizuneko prestakuntza edo/eta lanbidea aukeratu aurretik izan ditzaketen zalantzak planteatzeko.

Formula 1 Simulagailuen aretoan



Hezkuntza eta Aisialdia gizarte hobea izateko

Pertsonaren garapen integrala da Kutxaren Hezkuntza eta Aisialdi arloan lortu nahi den helburua, hortik sustatu nahi direlarik gizarte hobearen aldeko giza balioak. Eta, ezin bestela izan, hori hezkuntzaren bidez egiten du, hau baita funtsezko kontzeptua helburua lortzen saiatzeko.

Bi arlo osagarritan gauzatzen da heziketa hau: bata formalagoa, eta bestea aisialdira bideratuagoa. Ongi zehazturiko hartzailerekin: familiak, haurrak, nerabeak eta gazteak, horiengana zuzentzen direlarik Kutxak gai bakoitzeko adituekin lankidetzan programaturiko jarduerara asko.

Ohiko programen artean jarraitzen du garrantzi handikoa izaten Arotz Enean gauzatzen den jarduerak, erreferentziazko lekua Gipuzkoako neska-mutikoez izadia ezagutu, baloratu eta errespetatzen eta zaintzen ikasteko. Ingurumen-eskolan, bi eta bost egun arteko egonaldiak egiteko, 57 ikastetxetako 70 talde izan dira, guztira 3.000 ikasle. "Ohikoen" kategoria horretan, nahiz eta urtero egin berrikuntzak programen garapenean, Donostia Ezagutu eta Explorers bezalako klasikoak ere badaude hizkuntzak lagun-taldeetan praktikatzeko, eta era askotako udaleku edo koloniak.

Kutxaren proposamenetan parte hartzen duten gazteek #izanezberdin izeneko gune berria nola finkatzen zen ikusi dute: talentua bultzatzeko plataforma da, beren aisialdiaren protagonista eta aktore bihurtzen dituen. Kultura zentzurik zabalenean ulertzen du, honela jorratuz jakintza-arlo asko: musika, dantza, kirola, sukaldaritza, elikadura, teknologia, ikus-entzunezko mundua, iraunkortasuna eta solidaritatea.



Triatlói udalekuko parte-hartzaileak Arotz-Enean



Aritz Aranbururen Master Class bat Kutxa Kultur-en

#izanezberdin-ek izugarrizko hazkundera izan du musika-kontzertu, kirol-proba, teknologia-deialdi eta ikus-entzunezko lehiaketekin.

#izangood, #izanezberdin-en lehen "spin-off" a



Bere "spin-off" ak ere baditu, adibidez #izangood programa, hortik gero eta garrantzi handiagoa eman dielarik elikadurari eta ohitura osasungarriari. Adibidez, guacamolezko izozkia sortu da programaren izenaz bataiatua, Papperino izozki-denden laguntzaz, eta programa kalera ere irten da gazteentzako ogitarteko originalak eginez Txemi Artola edo Artzai Gomezen eskutik. Eta hori guztia Ana Elbusto mediku nutrizionistak gainbegiratuta eta bere aholkularitzari jarraituz.

2016an surf-ekimenekin ere loturik agertu zen #izanezberdin: Zarautz Pro, Surfilm Festibala (masterclass Kutxa Plazan, ekintza La Zurriola hondartzan eta film laburren proiektzioak Antzoki Zaharrean) edo Rider of Hawaii erakusketa Aritz Aranburu eta Kepa Acero surflarien hitzaldiekin. Programak bere lehen musika-izarrak ere baditu bere zigiluaz: Iñigo Serrulla, Burun Danga eta Nothing Box. Eta loturik egon da, halaber, herri-jaiekin: San Martzialetan Irunen, #izanezberdin eguna ospatu zuen Mutrikun eta parte-hartze aktiboa izan zuen Bergarako Kilometroak festan.

Bere programetan dagoen etengabeko berrikuntza agerian jartzen da 2016 eta 2017 artean antolatu zuen jarduera batean, "English & Fashion Camp" tailerra: parte-hartzaileek diseinu eta modaren munduko oinarritzko kontzeptuak ikasten dituzte era dinamikoan, eta ingelesez gainera.



Ikasketa Amaierako Sariak ematea

Bekak eta sariak

EB-ko goi-hezkuntzako ikastetxeetan ikasturte osoa edo zati bat egiteko laguntza gisa, Kutxak Erasmus Bekak deitzen eta ematen jarraitzen du, eta horietaz 2016an Gipuzkoako 225 unibertsitate-ikasle izan ziren onuradunak. Kutxabankek kudeatuta, laguntzen zenbatekoa aldatu egiten da atzerriko unibertsitateetan dagozkien egonaldiaren arabera, eta bateragarria da beste erakunde publiko eta pribatu batzuek emandakoekin.

Beste beka batzuek —Debagoien eta Debararren eskualdeetako enpresetan prestakuntza praktikoa egiteko, Murua Balzola Fundazioak finantzatu, Kutxa Fundazioak kudeatu eta Bergarako UNEDek antolatuak— lanbide-esperientziarik gabeko 30 gazte tituludun bilatzen dituzte, onuradunei lan-merkatuan sartzen laguntzeko eta horien enplegu-aukerak

gehitzeko.

Gipuzkoan 2015-16 ikasturtean izandako espediente akademiko onenek Kutxaren saria jaso zuten ekitaldi hunkigarri batean, bertan 350en bat lagun elkartu zirelarik ikasle, senide eta adiskideen artean. Felix Arrieta politologo eta Deustuko irakasleak hitzaldi bikaina eman zuen, eta ondoren Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak eta Manuel Beraza Kutxako presidenteak hitz egin zuten. Kutxak ematen dituen Ikasketa Amaierako Sariak 40. ediziora iritsi dira.

Gipuzkoako lau ikasle gaztek, Europa eta Amerikako zentro ospetsuetan truke-esperientzia handia bizi izan dutelarik, Altuning Sariak irabazi dituzte, urtero I.M. Altuna Fundazioak ematen dituenak, Foru Aldundiaren eta Kutxaren laguntzaz. Horietako hiru —Ander Galisteo, Carlos Aizpurua eta Ainhoa Ormaetxea— ingeniariak egiten ari dira Tecnum-en; eta laugarrena, Joseba Iztueta, arkitektura egiten EHUn.

Altuning 2016 Sarien irabazleak



Onkologikoa proiektua sendotu egin da eta erakunde- deen laguntza jaso du

Bere gaixoei, arretarik eta laguntzarik bikainean oinarrituta, ahalik eta zerbitzurik onena ematea, ekipamendu teknologikorik aurreratuena eta punta-puntako ikerketa klinikoaren arabera tratamendurik zehatzenak eskaintzea: horiek dira Onkologikoaren izateko arrazoia; baina, gainera, 2016an Kutxaren Onkologia Institutua beste helburu handi batera, bere

kontuak orekatzera, hurbildu zen.

